

JUBENILEN OHOREZKO MAILA

Azken sailkapena

Liga Nazionalera jaitsiko dira multzo guztietan 13, 14, 15 eta 16. postuan geratzen diren klubak.

JUBENILEN LIGA NAZIONALA

Azken sailkapena

a) Multzo bakoitzeko txapelduna Ohoreko Mailara igoko da.

b) 1., 4., 7., 8., 12., 13. eta 14. multzoetako txapeldunordeak Ohorezko Mailara igoko dira.

c) Kanarietako lehiaketa autonomikoan lehen lau postuetan sailkatzen direnak ere igo egingo dira.

d) 1. multzoan 15. eta 16. postuan geratzen direnak, 4. multzoan 14. 15. eta 16. postuan geratzen direnak, 7., 8., 9., 10., 15. eta 17. multzoetan 15, 16, 17 eta

18. postuan geratzen direnak, 6. eta 13. multzoetan 14, 15, 16 eta 17. postuan geratzen direnak eta gainerako multzoetan 13, 14, 15 eta 16. geratzen direnak lehiaketa autonomikora jaitsiko dira.

9. multzoan, Ohorezko Mailatik Federazio honetako inor jaisten ez bada, hiru talde jaitsiko lirateke.

e) Arau hau autonomi mailako federazioek aldatu ahal izango dute, jaitsiera kopurua hiru taldera murrizte aldera- sailkapenean 13. geratzen den taldea salbuetsi-, betiere hala erabakitzen badu dagokion batzar nagusiak. Halakorik erabakiz gero, berehala jakinarazi beharko litzaioke Espainiako Futbol Federazioari. Kasu horretan, era berean aldatuko dira lurraldeko ligatik Jubenen Liga Nazionalerako igoerak.

Nacional Juvenil.

ERREGE KOPA

1.- Klub partaideak

Zazpi multzoetako lehen bi sailkatuek eta hirugarren sailkatuen artean bi onenek parte hartu ahal izango dute, guztira hamasei talde.

Hirugarren sailkatuen artean bi onenak zein diren erabakitzeko ondokoak hartuko dira kontuan:

1) Puntu kopurua

2) Gol diferentzia

3) Aldeko gol gehien nork duen.

Prozedura hori erabiliz bi hirugarren onenak nor iren erabaki ezingo balitz, edo ezarritakoa betetzeko bakarren bat falta izango balitz, hirugarren sailkautirk onenen artean zozketa egingo litzatete ezarritako talde kopurua betetzeko.

EMAKUMEZKOEN SUPERLIGA

2.- Lehiaketa sistema

Multzo bakar batean, puntuetara eta bi itzultitara, guztira hogeita sei jardunaldi.

Irabazlea Ligako txapeldun izendatuko da.

Jaitsierak: Azken bi sailkatuak jaitsiko dira.

EMAKUMEZKOEN LIGA NAZIONALA

2.- Lehiaketa sistema

Puntuetara eta bi itzultitara, guztira hogeita sei jardunaldi. Multzo bakoitzeko txapeldunek bigarren liga bat jokatu dute, "Igoera fasea", hiru taldez osaturiko bi multzotan banatuta. Talde bakoitzak bi partida jokatu ditu guztira- zozketaz erabakiko da zein partida etxean eta zein kanpoan-. Lehiaketak hiru jardunaldi izango ditu denera.

Multzo bakoitzeko txapelduna eta txapeldunordea Superligara igoko dira, eta eskatzen diren baldintzak bete beharko dituzte. Talderen batek uko egiten badio igotzeari, hirugarrenari emango zaio aukera..

Jaitsierak:

I. MULTZOA- Azken lau postuetan sailkatuak jaitsiko dira.

II. MULTZOA- Azken hiru postuetan sailkatuak jaitsiko dira.

III. MULTZOA- Azken hiru postuetan sailkatuak jaitsiko dira.

IV. MULTZOA - Azken lau postuetan sailkatuak jaitsiko dira.

V. MULTZOA - Azken lau postuetan sailkatuak jaitsiko dira.

VI. MULTZOA - Azken lau postuetan sailkatuak jaitsiko dira.

Superligatik Liga Nazionalera jaisten diren taldeen kasuan, kategoria horretatik lurraldekora beste hainbeste jaitsiko dira, harik eta hamalau taldeko multzoa osatu arte.

Era berean, igoerarik izan ez den multzotik talde bat gutxiago jaitsiko da.

Igoerak:

I. MULTZOA

Euskadiko Federazioko txapelduna, Nafarroako Federazioko txapelduna, Aragoiko Federazioko txapelduna eta Errrioxako Federazioko txapelduna igoko dira.

Azken horrek uko eginez gero, Euskadiko Federazioko txapeldunordea igoko da. Aragoiko Federazioko klub bakar bat igotzen ez bada, talde bat gutxiago jaitsiko da. Posturen bat hutsik geratzen bada, hutsunea eragin duen Federazioko talderen batek beteko du.